



## Axpeko Andre Maria eliza (Busturia)

Andre Maria eliza soil eta trinkoa Axpe auzoko gune kontzentratuaren mendebaldeko mugan, Atxapunteko malkar nabarmenaren ondo-ondoan. Tenpluaren arkitektura zehazten duten oinarrizko formak gotikoaren azken uneekin loturik daude. Hori guztia zela eta, zenbait historialarik Izpeko (Haizpea) Andre Maria elizaren ondorengo-titulua eskatu zuten egungo eraikinarentzat. Busturiako eliza hori 1051ko urtarrilaren 30ean dohaintzan eman zioten Bizkaiko konde-kondesak ziren Iñigo Lopezek eta Toda beraren emazteak Gartzia Arabako apezpikuari. Ustez izena, funtzioak eta enklabea jaraunste hori zeharka berretsita dagoke: egungo eraikinaren inguruan aurkitu berri dira Erdi Aroko hilobi-ereduetara doitzan diren hilobi-tipologiak dituen kanpo-nekropoliaren hondakinak.


Ez dakigu zergatik berriztatu zen osorik ertaroko lehengo tenpluaren arkitektura, ezta lan hori noiz hasi zen ere. Karie buruz ez dakigu ezer oraindik. Egungo eraikuntza tratatu zen datarik benetakotzakoena XVI. mendearen hasierako hamarkadak dira. Haren planta angeluzuzena da. Nabea hiru tartetan eta aldarearen eta erretaula nagusiaren kokaeraren bitartez bakarrik identifikaturiko buru batean banatuta dago. Erretaula hori estilo neoklasikokoa da. Nabearen goragunea dotore eta neurriko da. Nabea nerbio zuzenetako gurutzeria-gangak antzeko goieran errematatuta dago. Gangok zurkaizturik dauden erdizutabeetatik igotzen diren baketoi meheen sorta landare-tailan fintasunez errematatuta dago. Horrek guztiak, ekialdera eta Mendebaldera irekitzen diren bao zorrotz bien trazeriarekin batera, agerian uzten ditu gotiko berantekoak.

Baina Hegoaldera irekitako portada da, nabearen erdiko tartearen dagoena, tenpluaren kronologia argienik agerrazten duena. Izan ere, *Errege Katolikoena* deitu izan den estiloa gogorarazten duen apaindura-pantaila osatzen du. Lore handian erremataturiko konopioz trasdosatutako turuta-antzeko ojibak arku beheratuko sarrera bikoitz Hartzen du, berriz aldatu eta erlaitz apainduan erremataturiko pilaretek inguruan dituen multzoan. Tinpanoan, hiru irudik kalbarioa osatzen dute, zizelaturiko idulkien gainean jarria. Enjutetan, landare-tondo lazeriadunek tronuan jarritako emakumezko irudiarentzako eta loredun kopoarentzako marko-balioa dute. Portada hori higadurak eta atari zaharraren inprontak inoizka aldatua, deigarria da, gainera, bera lantzeko erabilitako hareharriagatik, tenpluaren kaxa osoan erabilitako kareharrizko harri landuaren gisareniko kontraste irekian. Hainbesteko era-oparotasunaren aurrean, bigarren sarrera, kareharrizko dobela bitan tailaturiko arku zorrotza, mendebaldeko itxituraren oihalarekin bat eginez ezkutaturik-edo dago.

Hegoaldeko portadarekin batera, gezi-leiho meheek teilatuaren gainean nabarmenduta kanpaiak hartzen dituen bolumen txikirantz igotzeko torlojoaren ezkutuko presentzia salatzen dute. Hura klasizista zen estiloan, eta 1642 inguruan trazatu zen suntsitu berria zenaren ordezko gisa.

Tenpluaren barruko arkitektura mendebaldeko tartaren gaineko koruaz osatu da. Beronek nabearren igoera lasaia hausten du. Gainera, arkitektura hori iparraldera begirako kapera estuaz osatu da, zeinetan gune handiagoa baitago erdiko tartearen kanpoaldeko horma-bularren artean. Haren goragunea gurutzeriaz itxita dago eta tenpluaren erdia da ozta-ozta. Kapera horrek honakook harturik ditu barnean: Errosario Ama Birjinaren erretaula barrokoa, aurrealdeko hormakoa; eta San Antonen eta San Joan Bataiatzailearen tailak, alboko itxituretakoak. Kanpoan, aurrealdeko hormaren kontra, sakristiaren eta parroki bulegoen bolumena dago, 1855ean-edo eraikitako lerro neoklasikoetako eraikuntza aparta. Zurezko oin zuzenen gaineko teilape simpleak tenpluaren alboak besarkatzen ditu.

**Testua:** José Luis Ibarra.



**Axpeko Andre Maria eliza**  
Busturia. (Axpe auzoa, z/g).

**Nola heldu:**

Gernikatik Bermeorako errepidetik, Axpe auzoko lehenengo etxeetara helduta, ezkerretarako saihesbideak oro parroki tenpluraino doaz. Sainhesbide eta sarbide seinaleztatuak

**Bisiten ordutegia:**

Ordu zehatzetan bisitatu ahal da. Parrokoarekin harremanetan jarri, hora mezen ordutegitik kanpo bisitatzekotan.

**Inguruko beste leku interesgarri batzuk:**  
(Busturia)

- Jesus Gurutziltzatuaren. Irainleku.
- Madariaga dorrea.
- Amunategi erlojua.
- Txirapozu jauregia.
- Matilde etxaldea.
- Palmira etxaldea.